

Carlos Castaño

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendaria



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Ehun urte bete ditu Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak. Mendeurren zoriontsua egungo bertoko zuzendari Carlos Castañosentzat, matrikulazioek nabarmen egin dutelako gora

Iban Ocio • Bilbo

Ehun urte bete ditu Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak. Ehun urtean erruz aldatu da: hainbatetan mudatu dute lekuz, ikasketa planak etengabe berritu dituzte eta ikasleak hartzeko unean uneko irizpideek ikastegiaren izaera moldatu dute. Aldaketak aldaketa, Carlos Castaños da egungo eskolako zuzendaria. 1948tik maisu jardun du bertan. Pedagogia irakasten lehen-lehenik. Teknologia berrien maneiu eta didaktika jorratzen gero. Azkeneko bost urtean ikastegiko nagusiaren meneko kudeaketa lanetan ibili da. Besteak beste, eskolako erronken artean etorkinen seme-alabak alaitasun ongien prestatzen ikasteko premiari erantzutea dela azaldu dio EGUNKARIARI.

■ Zein izan da eskolaren bilakera?

Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normala 1864an abiatu zuten. Normala esaten zioten, irakaskuntzako norma edo arauak lantzen zituztelako. Mende aldaketarekin batera desagertu zen, eta 1902an osteria ere irakaskuntzako eskola gisara azaldu zen. Emakumeek bakarrik ikas zezaketen. 1903. urtean bihurtu zen ikastegi mis-

toa. 36ko gerraren ondotik gizak eta emakumeak banatu zituzten, eta 60ko hamarkadatik aurrera berriro eskola misto modura antolatu zuten. Lekuei dagokienez, hara eta hona eraman dute: Solokoetxe, Gordoz, Lertxundi, Ramon y Cajal eta Merzedetako kaleetan egon da.

■ Eskolan zabilzanetik, zer aldaketa igarri duzu eguneroko joan-etorrian?

Erronka berriei egokitu gatzazkie: eskola puntako teknologiez hornitu eta baliabideoi etekinik

albeit handiena ateratzen irakatsi diegu maisu-maistrei. Halaber, irakasleen prestakuntza akademikoan sakondu dugu: doktore gehiago dago gurean. Zenbat eta jakitunago, are eta mamitsuago dira eskola orduak. Eta ikasleei dagokienez ere egon da aldaketarik: gazteriaren jarrerak, asmoak eta motibazioak asko aldatu dira. Besteak beste, lehenago errazago aurkitzen zuten lana. Titulurik gabeko irakasleek ere lanean ziharduten —titulurik ez, baina fenomeno lan egiten



Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola, gaur egun

«Egailanek ikerketa egin eta zera ondorioztatu du: eskolako ikasleen %87k irakaskuntzarekin lotutako lanetan dihardute. Ez da lorpen makala»

zuten—. Orain, gaitzagoa zaie beharrean hastea. Ikasle askok, irakaskuntzarekin hertsiki lotutako lanei ez ezik, bestelakoei ere heltzen diete: udaletxeetan, hedabideetan, aisialdi taldeetan... ari dira.

■ Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Musika Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntza titulazioak ematen dituzue. Zeinek eskaintzen ditu lan aukera gehiago?

Haur Hezkuntzak eta espezialitateko ikasketek. Lehen Hezkuntza makalago dabil. Diplomatura orokorregia da. Irakasle asko dago, eta hezkuntza sistematik zer edo zer gehiago eskatzen die maisu-maistrei. Dena den, Egailanek ikerketa egin eta zera ondorioztatu du: eskolako kideen %87k irakaskuntzarekin harremana duten lanetan dihardute. Ez da lorpen makala.

■ Titulazioetan, zeinek erakartzen du ikasle gehien?

Haur Hezkuntzak. Ez da, ordea, ikasle gehien dagoen diplomatura, *numerus clausus*-ak iraunarazi eta sarrera mugatu dugulako. Lehen Hezkuntzan dabil ikasle gehien, tartean Haur Hezkuntzan saiatzeko gogoia zeukaten asko eta asko. Atzerriko Hizkuntza eta Musika Hezkuntza dago ikasle gutxien, aparteko dohain batzuk behar dituztelako.

■ Orotara, 2.300 ikasle daude eskolan. Zenbat euskaldun eta zenbat erdaldun?

Maisu-maistra titulazioetan gehiago dira euskaldunak. Berriki sortu dugun Gizarte Hezkuntza, erdaldunak. Diplomatura horrekin lotutako lan eremuetan euskara ez da hain premiazko.

■ Eskolan, beraz, euskaldunak nagusi dira, baina korridoreetan euskara entzun egiten da?

Bai, dezente. Eskolara heldu eta bakoitza bere taldera doa: ikasle euskaldunak, talde euskaldunetara. Euskara ahotan elkar ezagutu dute eta, normalean, eskolatik kanpora ere euskaraz mintzatzen dira euren artean. Gainera, badago ikasle euskaldunik erdal taldeetan. Euskara oso ondo jakin ez eta ikasketak gaztelaniaz egitea aukeratu dute banaka batzuek. Horiek ere laguntzen dute korridoreetako euskal giroa sortzen.

■ Ikasle euskaldun eta erdaldun gero eta gehiago biltzen da eskolara. Matrikulazioa, aurtent, igo egin da.

Nabarmen igo ere. EHUko fakultate eta unibertsitate eskoletatik, gu gara ikasle berri gehien hartu dugunok. Haur Hezkuntza, adibidez, ikasle kopurua bikoiztu egin da. Garrantzi handiko gertakaria, ezbaierik gabe.

■ Irakasle izateko grinak bultzatzen ditu ikasleak zuenera?

Antza, bai. EHUko titulazio hainbatetan *numerus clausus*-ak kendu dituzte. Ikasleek ia-ia nonahi jardun dezakete, baina gurea hautatzen dute. Bestalde, jada tituluduna den unibertsitario mordo hasi da etortzen. Baditugu psikologoak, pedagogoak... Aldez aurretik ikasitakoak irakaskuntzaren munduan baliatu gura dituzte.

■ Zein dira Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren etorkizuneko erronkak?

Hizkuntz trebakutza areagotzea, batetik. Haurrak eskolatik irteterako eleaniztunak izatea bermatu behar dugu. Bestetik, teknologia berrien alorrean badakugu zer hobetzerik. Eta etorkinen seme-alabak ondo prestatzeko ikastaroak ere ugartu behar ditugu. Etorkinak euskal gizartearen alaitasun ongien moldatzeko eskola orduak ematen irakatsi behar diegu gero-ko maisu-maistrei. Ikerkuntza areagotu behar dugu...